

Íkasleen txokoa

urumea ikastola



Iñigo Gorrotxategi - Hockey jokalarri hernaniarra

Munduko txapelduna Txinan / II

David Buldain eta Jon Gortazar

Txantxilaren historia:

Atzo... gaur Trinchera gaina (1867-2001) / III

Mikel Diaz eta Lara Rojas



Ixabelmania: "Kutsidazu bidea, Ixabel" orain telebistan izango dugu ikusgai telesail gisa / IV


Jaione Fernández,
Ibane Aizpurua eta Elena Iruin

Obstakuluez kokoteraino al zabilta? Moda berri honetan sartu eta horietaz pasa / III

Janire Anaut, Maitane Merino eta Aimara Sastre



Orriaren egileak Urumea ikastola / IV



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

URUMEA IKASTOLA

Iñigo Gorrotxategi - Hockey jokalaria hernaniarra

Munduko txapeliduna Txinan

IÑIGO Gorrotxategi hernaniar gazteak Donostiako Txuri Urdin hockey taldean jokatzeko du Junior mailan, eta martxoan zehar Txinan jokatuako Junior mailako munduko txapelketan urrezko domina lortu zuen. 18 urteko gazte honekin bildu ginen Urumea Ikastolan eta gure galderei prestutasun handiz erantzun zien.

Noiz hasi zinen hockey munduan?

Duela 10 urte hasi nintzen Donostia aldera joaten, hango Txuri Urdin taldean txikien mailan.

Zergatik hasi zinen kirol honetan?

Egun batean, nire anaiak (Imanol) hockeyari buruzko filme bat ekarri zuen etxera, izugarri gustatu zitzaigun bioi eta handik aurrera kirol horretan buru belarri sartu ginen. Gaur egun, nire anaiak ere jokatzeko du, senior mailan, Txuri Urdinen.

Zein taldetan jokatzeko duzue gaur egun?

Donostiako Txuri Urdin taldean, Junior mailan.

Orain dela gutxi munduko txapelketan gelditu zinen ezta?

Bai, Txinan jokatuako txapelketan urrezko domina eskuratu genuen.

Ba al duzue Txinan gertatutako bitxikeriren bat kontatzeko?

Egia esan ez genuen izan denbora asko kalean zehar ibiltzeko eta hango bizimoduaz jabetzeko, gehienetan entrenamenduetan edota partiduetan baikin, baina gehiena harritu ninduen izan zen txinatarrek oso gaizki gidatzen zutela; hango trafikoa infernua ematen zuen!

Zeintzuk dira zure erronka berriak etorkizunerako?

Gustatuko litzaidake Senior mailako jokalariekin jokatzea, beno, orain batzuetan jokatzeko dut beraiekin, baina nahiko nuke beren taldean sartzea asteburuero jokatu ahal izateko.



Iñigo Gorrotxategi Ikastolara egindako bisitan.



Iñigo, argazkiaren erdialdean, urrezko dominarekin munduko txapelketa ospatzen.

Gustatuko al litzazuke profesionala izatea?

Bai, baina oraindik ez dut horretan pentsatzen, nire bizimodua zeharo aldatu beharko nuke eta hemendik alde egin beharko nuke. Beraz, oraindik ez dut pentsatzen pausu hori ematea, gero gerokoak.

Nola joan zen munduko txapelketa?

Egia esan faborito bezala joan ginen Txinara. Aurkari gogorrenak Islandia eta Txina izan ziren, baina azkenean irabaztea lortu genuen.

Zer moduz zeuden kirol azpiegiturak?

Ondo zeuden, hemengoak baino pixka bat hobekiago ziren; hala ere, ez ziren txunditzaile modukoak.

Ikasi al zenuen txineraz ezer?

Ja, ja, ja... Ez, ez nuen denborarik hango hizkuntza ikasteko, entrenamendu eta partiduz leporaino geundelako. Baina hurrengo batean, berriro joaten banaiz, zerbait ikasten saiatuko naiz.

Zer moduz bidaia eta ordu aldaketak?

Joaterakoan nahiko ondo egokitu nintzen, baina bueltatzerakoan gehiago nabaritu nuen eta kosta egin zitzaidan berriro erritmoa hartzea.

KATE MOTZEAN:

Itsasoa ala mendia:

Mendia.

Hernani ala Donostia:

Hernani.

Animali bat:

Arranoa

Kolore bat :

Urdina.

Zenbaki bat :

13a

Musika talde bat:

Arkada Social

Abesti bat:

Desiaré.

Beno Iñigo, eskerrik asko guregana etortzeagatik eta ea zortea duzun eta zure ametsak betetzen diren.

DAVID BULDAIN ETA
JON GORTAZAR
Urumea ikastola

ikasleen txokoa

Obstakuluez kokoteraino al zabilta? Moda berri honetan sartu eta horietaz pasa

Orain dela oso gutxi, David Bellek kirol berri bat sortu du, oso ospetsua egin da, baina ez da kirol arrunt bat, mugimenduan dartzan artea baizik. Arte honek PAR-KOUR izena du.

Kirol hau edozeinek praktika dezake, berdin da emakumezkoa ala gizonezkoa izan, praktikatzeko behar duzun gauza bakarra, zure gorputza ondo kontrolatzea eta gogo handia izatea da. Kirol hau praktikatzen dutenei "TRA-CEURS" deitzen zaie.

Esan dizuegun bezalaxe ez da ezer berezirik behar Parkourra praktikatzeko, baina entrenamendu fisikoa nahitaezkoa da akrobazia horiek egin ahal izateko.

Parkourra naturako edo hiriko trabak gainditzean datza, gelditu gabe, noski. Kirol hau oso azkar egin da ospetsu, Lissesko distritotik (Paris), Hernaniraino edo oraindik urrutirago iritsi da.

Eta Hernanin zer?

Ba al dago Parkourren praktikatzailerik Hernanin? Gure herrian, gora begiratu gero seguru aski zaleturen bat aurkituko duzu. Oraindik ez daude praktikatzaile asko; ez gustuko ez dutelako, baizik eta oraindik zer den oso ondo ez dakitelako.

Lasai, laister ibiliko dira kalean zehar, ez urduritu !!!

JANIRE ANAUT, MAITANE MERINO ETA AIMARA SASTRE
Urumea ikastola



Noizko ikusiko ditugu horrelako irudiak Hernanin?


❖ BITXIKERIAK

Txantxilaren historia: Atzo... gaur Trinchera gaina (1867-2001)



Kanposantua (1867-1915)

Argazki hau Valentin Berrondok 1950. urtean emandakoa da. Hona hemen duela 140 urteko argazkia. Orain ezagutzen dugun Txantxila aparkalekua, lehen, duela 140 urte, kanposantu bat izan zen. ||



Futbol zelaia (1950/08/27)

Argazki hau Juan Olanok atera zuen 1950. urtean eta urte berean eman zuen. Bertan, Txantxilaren inaugurazio partidua azaltzen da, abuztuaren 27an. ||

Aparkalekua (2001...)

Trinchera gainetik hilerri behar, gure destino tristia gerra urteko udazkenean malkoz ta odolez bustia. Gero zezenek eta futbolak piztu zuten lur azpia; barrua hustu ta kotxez bete buelta histori guztia. Kotxeak ere lau kurpileko mitxoak baizik ezta. ||



MIKEL DIAZ ETA LARA ROJAS
Urumea ikastola

24

zenbakia

ikasleen txokoa

Ixabelmania: "Kutsidazu bidea, Ixabel" orain telebistan izango dugu ikusgai telesail gisa

Honezkeror jende askori egiten zaio ezaguna "Kutsidazu bidea, Ixabel" izenburua. Izan ere, bi liburu, antzerkia, antzerkiaren DVD-a, istorioari buruzko jokoen CD-a eta pelikula bat sortu dituzte; eta orain, ETB 1eko telesail bati emango dio hasiera izenburu horrek.

Telesaila eta filma batera grabatu ziren, baina telesailen pertsonaia gehiago azalduko dira. Mireia Gabilondok, "Kutsidazu bidea, Ixabel"-en filma eta telesailaren zuzendariak dioenez, badu arriskua jendea aspertzeko, baina filmarekin gozatu zutenek pertsonaia horiek ondo hartuko dituztela dio.

Antzerkia ez zuten produktore berberekegin, beraz, badaude antzerkiaren eta filmaren arteko desberdintasunak. Filma eta telesaila grabatzea esperientzia oso polita izan dela dio zuzendariak, lehenengo aldia izan baita.

Filmari dagokionez, Mireia Gabilondo eta Fernando Bernuesen artean zuzenduta dago. Aktore nagusiak, Mikel Losada eta Ainere Tolosa dira. 97 minutuko iraupena du eta 2006. urtean grabatu zen. Bertan kontatzen da nola Donostiako gazte batek uda mendian dagoen baserri batean pasatzea erabakitzen duena, bere euskara hobetzeko asmoz. Han, baserritarrek darabilkiten euskara ez dela euskaltegian ikasitakoa bezalakoa konturatu da.

Mireia Gabilondoren ustez, film batek pertsona guztiengana iritsi beharko luke. Ea zorte ona duten eta hori betetzen den!

Dena den, oso gustura daude, Euskal Herri osoan oso ondo hartu delako filma eta espero dute telesaila ere modu horretan hartzea. Aste honetatik aurrera ikusiko dugu emaitza.

JAIONE FERNÁNDEZ, IBANE AIZPURUA ETA ELENA IRUIN
Urumea ikastola



Orain arteko produktu sorta erakusgai, "Kutsidazu bidea, Ixabel"-ek izandako arrakastaren seinale.



Urumea ikastolako ikasleak, gaurko Ikasleen Txokoaren egileak.